

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0002
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

## 2022-03-02ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko martxoaren 2an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

### BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Unai Dorronsoro Olarra

### BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue
- Aingeru Galarraga Barandiaran

### Udaleko idazkari kontu-hartzailea:


- Oihan Ostolaza Arruabarrena

### AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. ERREKA ONDOKO URALITA ZATIAK
4. KONTRATAZIO ZENTRALA: ENERGIA ESPEDIENTEA 2022
5. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2021-KALD-0000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA
6. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA
7. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTU ALDAKETA
8. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA
9. KORRIKA
10. GALDERA ERREGUAK

### 1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-02-01eko akta aho batez onartu da.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

## **2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

2022ko 1 eta 13 bitarteko dekretuen berri eman da.

## **3. ERREKA ONDOKO URALITA ZATIAK**

330/2021 Sarrera Erregistroaren bidez, Albizturko Industria Gunea B Areako lurren jabe den Juan Bautista Iraola Tejeria jaunak, erreka bazterrean eta bere lurretatik gertu uralita zatiak zeudela jakinarazi zion Albizturko Udalari.

Albizaturko Udaleko arkitekto aholkulariak, 2022ko otsailak 2an egindako ikuskaritzan frogatu zuen uralita zatiak zeudela erreka bazterrean, eta txosten teknikoa idatzi zuen argazki eta guzti.

Txosten hortan oinarrituz 7/2022 Alkatetza Dekretua egin zen, eta bertan, lur horien jabea den Ramon Odriozola Garmendia jaunari, hilabeteko epean baimendutako kudeatzaile baten bidez hondakin horiek kentzeko eta Albizturko Udalean lan horiei dagokien dokumentazioa aurkezteko eskatu zitzaion.

7/2022 Alkatetza Dekretuaren jakinarazpena 2022ko otsailaren 10ean jaso zuen Ramon Odriozola Garmendia jaunak, eta oraindik hilabeteko epea pasa ez den arren, uralita zatiak dagoeneko ez daude erreka bazterrean, eta Albizturko Udalean ez da uralita zati hauek kentzeko beharrezkoa den dokumentaziorik aurkeztu.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Eusko Jaularitzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri, gertatutakoaren berri eman eta Albizturko Udalak eman beharreko pausuei buruz galdetzea.

## **4. KONTRATAZIO ZENTRALA: ENERGIA ESPEDIENTEA 2022**

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, argindar horniduraren kontratazio espediente berri bat irekitzeko asmoa du eta Albizturkoko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

**5. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2021-KALD-000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Idazkari Kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

**Lehenengoa.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:


**KREDITU GEHIGARRIAK**

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	36.963,24
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>36.963,24</b>

**FINANTZAKETA**

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	36.963,24
<b>GUZTIRA</b>		<b>36.963,24</b>

**Bigarrena.**- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

## **6. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA**

Landa bideen dirulaguntza 2022ko otsailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta martxoaren 9 arteko epea dago eskaerak egiteko.

Gutxienez 4.000 €ko inbertsioa izan behar du eta nekazal esplotazioetara doazen bideek puntu gehiago lortzen dituztenez, aukera gehiago dute dirulaguntza lortzeko.

Trafikoa asko ugaritu denez, Aizkorri Handi eta Olateagara doan errepidea zabaldu eta kunetak egiteko beharra ikusten da (kotxeak gurutzatu ahal izateko), eta aurrekontua eskatuko da.

## **7. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTU ALDAKETA**

Tolosaldeko Mankomunitateak estatutuak aldatzeko igorritako proposamena aztertu dugu, eta ontzat eman dira dokumentua eta proposatzen diren aldaketak.

## **8. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA**


Osoko bilkurak aho batez Martxoak 8ko adierazpenari atxikitzea onartu du:

### **Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea**

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarrean eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nork bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

**Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen**, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.


Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdintasunarekin, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobreziaren feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bitzita askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Albizturko udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkien/on jarraipen-eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko **baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak** indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean **generoaren eta giza eskubideen** ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- **Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza** bultzatzea, oinarrizko, derrigorrezko eta etengabeko **prestakuntza-plana progresiboki planifikatuz**.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema** zabaltzea, gure eskumenen esparruan, **detekzio goiztiarreko sistemen hobekuntzan** aurrera eginez, **neurri guztien erdigunean biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea kokatuz, eta biktimen erreparazio-eskubidearen aitortzea aintzat hartuz**.
- **Ikuspegi intersektionalaren** integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

- **Herritarren sentsibilizazioan** sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean** garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.
- **Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak** hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

**Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu udalerrietan antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!**

## **9. KORRIKA**

2022ko martxoaren apirilaren 10era 22. Korrika ospatuko da, eta antolakuntzatik Albizturko Udalari kilometro 1 erostea eskaini zaio. Kilometroaren prezioa 600 € + BEZ (%21) da.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehen.**- 22. Korrikako kilometro 1 erostea.

**Bigarrena.**- Korrikako antolakuntzari erabakiaren berri ematea.

## **10. GALDERA ERREGUAK**

- **Lur sailen digitalizazioa:** Gipuzkoako Foru Aldundian Gipuzkoako udalerritako lur sailak digitalizatzeko dirulaguntza argitaratu du, eta Albizturko 1.go eta 2. poligonoa digitalizatzeko dirulaguntza lortzen saiatuko gara.

- **Azarola Goikoara doan errepedearen izaera argitzeko espedientea:** Azarola Goikoako jabeek espedientearen kopia eskatu dute, eta badirudi gaiak epaitegietan bukatuko duela.

Osoko bilkura, 20:35etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko martxoaren 3an